# MAMOGRAFIA

- **MAMOGRAFIA** egitearen helburua: haztatuz atzeman ezin diren lesioak zehaztea (screening bidezko mamografia); edo lesioa ote den aztertzea medikuak ukitzean nabaritu duen zerbait (mamografia sintomatikoa).
- Proba egiteko beharrezkoa da bularra zapaltzea, bular-ehunak behar bezala ikusi ahal izateko.
- Zapaltze hori desatsegina da, eta batzuetan mingarria ere bai.
- Normalean erradiografia bi egiten dira bular bakoitzean. Hala ere, batzuetan erradiografia gehiago egin behar zaizkio titietako bati, hura hobeto aztertzeko. Horrek ez du esan nahi nahitaez patologiaren bat duzunik.
- Proba hori eskatu duen medikuak emango dizu mamografiaren emaitza.
- Haurdun bazaude edo agian bazaude, azterketa egin aurretik jakinarazi iezaiezu ataleko langileei.
- Aurretik egin dizkizuten bular-azterketa GUZTIAK erakutsi behar dituzu (azken 5 urteetakoak gutxienez), konparazio bidezko azterketa OSO GARRANTZITSUA izan daitekeelako (mamografiak, bular-ekografiak, etab.).

### *GERTA DAITEZKEEN KONPLIKAZIOAK*

- Proba egin bitartean, baliteke mastitisa gertatzea, bularra zapaltzearen ondorioz, baina oso zaila da hori pasatzea. Horrelakoetan, zuzenean kontsultatu beharko zenuke miaketa eskatu duen medikuarekin.
- Iododun kontrastearekiko alergia.

### *PAZIENTEA PRESTATZEA*

- Mamografia egin behar den egunean, **EZ EMAN EZ KREMARIK EDO TALKO-HAUTSIK BULARRETAN ETA BESAPE INGURUETAN**.

### *BEREN BEREGI EMANDAKO BAIMENA*

Ez da beharrezkoa ***Baimen Informatua*** ematea.

- La **MAMOGRAFÍA** tiene como objeto determinar lesiones que no se palpan en las mamas (mamografía de screening) o estudiar una posible lesión que le ha palpado su médico (mamografía sintomática).
- Para realizar la prueba es necesario comprimir la mama, a fin de visualizar correctamente el tejido mamario.
- Dicha compresión es molesta pudiendo, en ocasiones, ser dolorosa.
- Lo habitual es que se realicen dos radiografías en cada mama. Sin embargo, en ocasiones, es necesario obtener más radiografías de una de las dos mamas, con el fin de estudiar mejor éstas. Esto no implica necesariamente que tiene Ud. ningún tipo de patología.
- En caso que Ud. quiera consultar el resultado de la mamografía, el médico que le ha solicitado dicha prueba será la persona indicada para ello.
- Comunique al personal de la Sección la posibilidad de embarazo, antes de realizar la exploración.
- El estudio comparativo entre los diversos estudios mamarios puede ser MUY IMPORTANTE por lo que Ud. Tiene que aportar TODOS los estudios mamarios que le hayan sido realizados previamente, al menos en los últimos 5 años (Mamografías, Ecografías Mamarias).

### *POSIBLES COMPLICACIONES*

- Es posible, aunque muy improbable, que ocurra una mastitis como consecuencia de la compresión de la mama durante la prueba. En ese caso, debería consultar al médico que ha solicitado la exploración.
- Reacción alérgica al contraste yodado

### *PREPARACIÓN DEL PACIENTE*

- Deberá **EVITAR APLICARSE CREMAS O POLVOS DE TALCO EN LAS MAMAS Y REGIONES AXILARES** el día de la mamografía.

### *AUTORIZACIÓN EXPRESA*

No es necesaria la entrega del ***Consentimiento Informado.***